

Start INNOVA



Ekiten ikasiz

BULTZATZALEA

EL CORREO

BABESLEAK

EL GOBIERNO VASCO
EUSKO JAGURABITZA
GOBIERNO VASCO
HEGURTIA SIDA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION

Sabadell
Estar donde estés

Bilbao
BILBAO
ARTEIZABAI

ENPRESA AHOLKULARIAK

lurpelen Ingeteam

M
MILANO
S.p.A.

BRIDGESTONE

K
KONSTRUKTIO

TEKNOLOGIA

INDUSTRIAL

AVANZA

A

Fundación

Getxo

Sestao

San

SZ

UPV

EH

UPV

EH

UPV

EH

UPV

EH

UPV

EH

KOLABORATZALEAK

Tknika
Tecnología Industrial

AURKIBIDEA

- ▶ Sarrera 3
- ▶ Ikuspegia 4
- ▶ Proaktibitatea 5
- ▶ Planifikazioa 6
- ▶ Sinergia 7
- ▶ Komunikazioa 8
- ▶ Motibazioa 9
- ▶ Negoziazioa 10
- ▶ Agurra 11

Sarrera

Ongietorri STARTinnovako lehen atalera. “Ekintzailetasunaren inguruan ikasiz” izenpean, eta pertsona ekintzaileen ezaugarrietan zentratzen da; denok ditugu honako ezaugarriak, neurri handiago edo txikiagoan: ikuspegia, proaktibitatea, planifikatzeko gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna, negoziatzeko gaitasuna, sinergia egiteko gaitasuna eta motibazioa. Baina gogora ezazu ez dela beharrezkoa ezaugarri horiek guztiak edukitzea ekintzaile izateko, Ez gara super-heroiak!

STARTinnova-n, jokabide ekintzaileak eraikitzen dituen e-learning plataformaren bitartez garatzen den formakuntza programa eta zeinean parte hartzen duzun, eskuragarri dituzun bideo eta ariketa interaktibo eta norbere ebaluazioa egiteko frogen bitartez ikasi dituzun eduki klabeen laburpena aurkituko duzu jarraian.

STARTinnova lantaldea

info@elcorreo.startinnova.com

<http://elcorreo.startinnova.com>

Ikuspegia



Ionek Long oholarentzako gupil berriak erosi behar dituela eta, skatearekin loturiko produktuetan espezializatutako denda batera joaten da Anerekin batera.

Dendan daudela, Ionen marrazkiak bertan saltzen dituzten oholetako marrazkien mailakoak direla pentsatzen du Anek. Ionek aspalditik marrazten du eta primerako ilustratzailea da.

Une horretan bertan, bere lagun Ionekin batera egitasmo bat abiarazteko aukera begitantzen du Anek. Aldi berean, bere ohol propioak diseinatu ditzakeela komentatzen dio Ionek Aneri, eta ideia jakin horren inguruan pentsatzen hasten da.

Sukaldari baten antzera, zeinak tortilla egin baino lehen emaitza ikusi egiten duen, Ionen eta Aneren egitasmoak ere pixkanaka forma hartzen du bi lagunen irudimenean. Horixe da, alegia, IKUSPENA.

LABURBILDUZ:

- kuspegia da emaitza bat irudikatzeko ahalmena, emaitza hori gauzatu aurretik.
- Lehenengo irudikatu egiten dugu, eta gero sortu.

Proaktibitatea



Skater batzuen oholak arretaz begiratzean, diseinuen maila oso altua dela pentsatzen du Ionek. Ez daki bere marrazkiek zer nolako harrera izango duten merkatuan. Izan ere, merkatuan diseinu on asko dagoela uste du, eta zalantzan jartzen du bereak erakargarriak izango diren publikoarentzat.

Ionek, gu guztiok bezalaxe, zalantzak ditu bere ahalmenen inguruan. Hala eta guztiz ere, bere marrazkiak publiko objektiboaren gustukoak ote diren deskubritzea erabakitzen du behingoz.

Anek Ionen gaitasunean sinisten du eta berak bultzatuta, Ionek marrazki bat hartu eta skater taldeari erakusten dio. Skate egiten duten gazteek oso balorazio positiboa egiten dute.

Markatutako helburua lortzeko bere ekintzen erantzukizuna bere gain hartzea erabaki du Ionek. Hau da, erabaki du, dagoeneko, zer egin nahi duen eta nola egin nahi duen. Horixe da, hain zuzen, PROAKTIBITATEA.

LABURBILDUZ:

- Proaktibitatea da zer eta nola egin nahi den erabakitzea.
- Askatasunez erabakitzea, ondo egindakoen zein egindako akatsen gaineko erantzukizuna onartuz.

Planifikazioa



Honakoa bezalako egitasmotik bat abian jartzeko jarraitu beharreko bidea zein den argi ez badute ere, beharrak eta eman beharreko pausuak identifikatzen hasten dira.

Ionek inprobisatzeko joera dauka eta egin beharreko gauzekin arduratuta egon da orain arte, baina Ane ikustean lasaitu egin da. Izan ere, lasai eta egitasmoa ondo aterako delakoan dago Ane, lana behar bezala planifikatu baituelako.

PLANIFIKAZIOA prozesu bat da, zeinak ondoko ezaugarriak dituen: metodikoa da, helburu jakin bat lortzeko diseinatutakoa; eta erabakiak hartzea eskatzen du, desiratzen den helburua lortzeko.

Horretarako, zera hartzen da kontutan: egungo egoera eta helburuen lorpenean eragin dezaketen barneko zein kanpoko faktoreak.

LABURBILDUZ

- Eraginkorra izateko, zer nahi dugun jakin behar dugu.
- Inprobisazioa da ezarritako gidoirik gabe lan egin eta bilatutako emaitza lortzeko aldaketak asimilatzea.
- Planifikazioa da emaitza jakin bat lortzeko urrats batzuk jarraitzea.

Sinergia



Bere lagun Ikerrek webguneak egiten dituela gogora ekartzen dio Anek Ioneri. Proiektua merkaturatzeko modu on bat izan daitekeela uste dute biek, eta bide batez, skatea eta pertsonalizatutako diseinuak maite dituztenak harremanetan jartzeko bitarteko bat.

Hiru lagunek lanari ekiten diote, bakoitzak bere trebetasunak aplikatuz: Ion diseinu eta ilustrazioa arduratzen da; Ikerrek webgunea prestatzen du; eta Anek, berriz, bezeroak bilatzen ditu, bere trebetasun komertzialak erabiliz.

Hiru lagunek oso bestelako trebetasunak dituzte eta horiek guztiak proiektu bakar batean nahastean emaitza hobeak lor ditzakete, bakoitzak bere aldetik lan egiten duenean baino.

Horixe da SINERGIA: lantalde batek lortzen dituen emaitzak handiagoak dira, taldekide bakoitzaren esfortzu eta gaitasunen batuketa baino.

LABURBILDUZ:

- Proiektu komun batean talentuak eta abileziak konbinatzeak lana errazten du, eta bakoitzak bere aldetik jardunda baino emaitza hobeak lortzen dira.
- Sinergiaren irudikapena: $2+2=5$

Komunikazioa



Lana antolatu ondoren, negozioa hemendik hilabetera egon daitekeela martxan ondorioztatzen du Anek. Ordurako, Ionek 100 diseinu egin beharko ditu, eta Ikerrek berriz, webgunea prest. Iker eta Ion kontziente dira laster ezingo diotela lanaren erritmoari eutsi.

Orduan, Ikerrek Anerekin hitz egitea erabakitzen du, bizi duen estualdiaren berri emateko. Ionek, ordea, lanean jarraitzen du atsedetik hartu gabe, Aneri huts ez egitearren. Anek arretaz entzuten du Ikerrek esandakoa, bere sentimenduak zer nolakoak diren zehatz-mehatz ulertu nahian.

Azaldutako egoera honetan, agerian gelditzen da Ikerrek eta Anek asertibotasuna erabiltzen dutela, hots, ahozko KOMUNIKAZIOA ona izan dadin ezinbestekoa den ezaugarria, alegia. Bai Anek, eta bai Ikerrek argi dute elkarri ulertzeko derrigorrezkoa dela aurrekoak esaten duena entzutea.

LABURBILDUZ:

- Komunikazio ona lortzeko funtsezkoa da beste pertsonaren lekuan jartzea, arretaz entzutea, eta errespetuzko jarrera erakustea, ulertzen saiatuz.
- Hizketa bidezko komunikazioa komunikatzen dugunaren % 7 da; gainerako % 93a hizketaz kanpoko komunikazioari dagokio.

Motibazioa



Krisialdiaren ondoren, hitz egiteko biltzen direnean, bat datoz euren zaletasunaz gozatzeko modu bat ere izan behar duela proiektuak, eta hasieratik larritzeak ez duela merezi. Horrexegatik, erronka xumeagoa hartzea erabaki dute: erdia egingo dute.

Sortu duten webgunean erabiltzaileek lonen diseinuei buruz utzi dituzten iruzkin positiboak erakusten dizkio Anek loneri, ordura arte jasotako eskaera mordoarekin batera. Egitasmoak berebiziko martxa hartu du, eta lonen marrazkiek arrakasta handia lortu dute.

Lon motibatzen saiatzen ari da Ane, bere diseinuek lortu duten harrera ona eta proiektua bide onetik doala erakutsiz. Ionek egitasmoarekiko lotura sentitzen du berriro, Anek emandako kemenari esker.

MOTIBAZIOA barneko egoera bat da, zeinak jokabidea aktibatu, gidatu eta mantentzen duen. Egiten ditugun gauza gehienek motibazio jakin bat dute, kontziente ala inkontzientea.

LABURBILDUZ:

- Motibazioa barne egoera bat da, jarrera aktibatzen, zuzentzen eta mantentzen duena.
- Lider on batek taldea motibatzeke gaitasuna dauka.

Negoziazioa



Ikerrek zera galdetzen die: Zein izen jarriko diote enpresari?, Nola adostuko dute hiruon gustukoa den izen bat?

Ionen ustez, hiruak egon behar dira presente enpresaren izenean, izan ere, hiruen ekarpena ezinbestekoa baita proiektua aurrera eramateko. Gauzak horrela, taldekide bakoitzaren izenaren lehen bi hizkiekin osatzea proposatzen du: IOIKAN. Denek txalotu egiten dute bere ideia.

Harreman eraginkor eta iraunkorrak izan nahi baditugu, nahitaezkoak dira elkarrekiko errespetua eta onura bilatzea, eta kasu honetan, baita denon gogokoa den akordioa hartzea ere.

Gatazkak konpontzea, ekintza-lerroak adostea, abantaila indibidual eta kolektiboak bilatzea eta, aldi berean, denon intereserako emaitzak lortzea ahalbidetzen duen prozesuari esaten diogu **NEGOZIAZIOA**.

LABURBILDUZ:

- Negoziazioa da gai beraren aurrean jarrera ezberdinak dituzten aldeen arteko gatazkak konpontzeko prozesua. Helburua da adostasuna lortzea, proposamenak elkartrukatzuz, alde guztiek lor ditzaten beren interesetarako emaitza baliagarriak.
- Harremanak eraginkorrak eta iraunkorrak izan daitezen, beharrezkoa da elkarrenganako errespetua eta onura.

Agurra

IKUSPEGIA da gure ideia buruan irudikatzeko dugun gaitasuna, ideia hori gauzatu aurretik. Eso no implica no tener miedo a las consecuencias. El miedo en sus dosis adecuadas nos ayuda a estar alerta y a prevenir posibles peligros.

PROAKTIBITATEAK ditugun aukeretan sinesten eta ondo egindakoen zein egiten ditugun hanka-sartzeen erantzule garela jakiten erakusten digu. Eta horrez gainera, beti izango dugu buruan huts egitea ere positiboa dela, agerian uzten baitigu bide hori ez dela bide egokia.

PLANIFIKAZIO ahalmen on batek nahi dugun emaitza lortzera eramango gaituen arren, kontuan izan behar dugu inprobisatzen jakitea ere ezinbestekoa izango dela espero ez ditugun egoerei aurre egiteko orduan.

SINERGIA egiteko gaitasunaren garrantzia ere oso kontuan izan behar dugu, taldeko lanaren emaitza beti izango baita handiagoa taldeko kide bakoitzaren esfortzu eta gaitasunen batuketa baino.

Hitzeko **KOMUNIKAZIO** gaitasuna funtsezkoa da talde-lana eraginkorra izan dadin; komunikazio hori, betiere, denok berdinak garelako printzipioan oinarritutakoa, eskubide berberekin eta errespetu berbera merezi dugulako ideian oinarrituta.

MOTIBAZIOA ere derrigorrezkoa da. Lider on baten eskutik, oso tresna baliagarria izan daiteke motibazioa une zaileri aurre egiteko. Lider batek jarraitu beharreko norabidea markatzeko gaitasuna izan beharko du, taldekide bakoitzaren alderdirik onena nabarmenduz bai helburu indibidualak bai kolektiboak lortzeko orduan.

Azkenik, **NEGOZIAZIO**rako trebetasuna azpimarratuko dugu. Negoziazioaren eredu ideala irabazi/irabazi harremanean dago oinarrituta, eta horrek zera esan nahi du: inplikaturako alderdi guztiak izan behar dira irabazle, denek utziko dute argi zer nahi duten eta negoziazioa egiteko orduan, mugak argi zehaztu beharko dira.

Amaitzeko, gogoan izan hemen azaldu dizkizugun trebetasun eta kontzeptu guztiak erabili ahal izango dituzula STARTinnovan zure ideia aurrera eramateko orduan.